

## Parte II. Ejercicio A.

---

Josune de 30 años se ha presentado en la Oficina Comarcal Agraria de la Diputación Foral de Bizkaia porque tiene posibilidad de arrendar unos terrenos de pasto en el municipio de Mungia para desarrollar la actividad agraria. Expone que:

- a. Desea instalarse como joven agricultora dentro del procedimiento GAZTENEK. El plan de empresa recoge el establecimiento de 2.000 metros cuadrados de un multi túnel sin calefacción de plástico de 40 x 50 m y 3 m. a canalón, donde desarrollará el cultivo de tomate y lechuga en suelo con técnicas de Producción Integrada. Dispone de un análisis de suelo que justifica la no necesidad de aportes de abonados ni de enmiendas, la textura del suelo es franco arenosa.
- b. No piensa encargarse de la comercialización por lo que su idea es entregar el producto a una cooperativa de comercialización de la zona.
- c. Va a adquirir el plantel a un viverista.

Dado que eres técnico o técnica de la Oficina Comarcal de Mungia te solicita información y asesoramiento relativo a:

1. **Programación anual** de cultivos para el tomate y lechuga que recomendarías a Josune teniendo en cuenta las premisas descritas en los puntos a, b y c, y considerando que no se cultivarán al mismo tiempo el tomate y la lechuga (los 2000m<sup>2</sup> de superficie hortícola forman **una unidad de cultivo**). **1 PUNTO**
2. **2.1)** Para el cultivo del TOMATE, Diseñar la **estrategia general** a seguir para el **control integrado** de las principales plagas y enfermedades con mayor incidencia en la comarca en la que se pretende instalar. **1.5 PUNTOS**  
**2.2)** Para el cultivo del TOMATE, **citar** las principales plagas y enfermedades que pudiera tener con mayor incidencia en su explotación. **1 PUNTO**
3. Para ambos cultivos en suelo, **citar** la maquinaria y aperos necesarios con sus **características básicas** para desarrollar la actividad productiva. **1.5 PUNTOS**

## II. zatia. A ariketa.

---

Josunek 30 urte ditu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskualdeko nekazaritza-bulegora joan da, Mungian larrerako lur batzuk errentan hartzeko aukera duelako, nekazaritza-jarduera garatzeko. Hau adierazten du:

- a. Emakume nekazari gazte gisa aritu nahi du GAZTENEK prozeduraren barruan. Enpresa-planean jasotzen da 2.000 metro koadroko eremuan berogailurik gabeko plastikozko multitunel bat jarriko duela (40 x 50 m; 3 m kanaloira), tomateak eta urazak landatzeko, zoruan, ekoizpen integraturako teknikak erabilia. Zorua analizatu egin du, eta, haren arabera, ez du behar ongarririk ezta lur-medegarrik ere; zorua franko hareatsua da.
- b. Ez du merkaturatzeaz arduratu nahi; beraz, bere asmoa da produktua eskualdean dagoen merkaturatze-kooperatiba bati ematea.
- c. Mintegizain bati erosiko dizkio mintegi-landareak.

Mungiako eskualdeko nekazaritza-bulegoko teknikaria zarenez, informazioa eta aholkularitza eskatu dizu gai hauei buruz:

1. Josuneri gomendatuko zeniokeen tomatea eta uraza landatzeko **urteko programazioa**, kontuan hartuta a, b eta c letretan deskribatutako baldintzak, baita tomateak eta urazak ez direla aldi berean landatuko ere (2.000 m<sup>2</sup>-ko baratze-azalerak **landaketa-unitate bat** osatzen du). **PUNTU 1**
2. **2.1)** TOMATEA landatzeari dagokionez, diseinatu ezazu **estrategia orokor** bat ustiategia jarri nahi den eskualdean eragin gehien duten izurrite eta gaixotasun garrantzitsuenen **kontrol integrala** egiteko. **1.5 PUNTU**  
**2.2)** TOMATEA landatzeari dagokionez, **aipatu itzazu** ustiategian eragin gehien izan dezaketen izurrite eta gaixotasun garrantzitsuenak. **PUNTU 1**
3. Zoruko landaketa bietarako, **aipatu itzazu** ekoizpen-jarduera garatzeko behar diren makineria eta lanabesak, bakoitzaren **oinarrizko ezaugarriak zehaztuta**. **1.5 PUNTU**